 BOL S VASCO-NAV PEDIATR. 2023; 55: 1-3

# Editorial

# *Editoriala*



*Ignacio Díez López*

Querido lector y compañero de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría:

Año 2023. ¿Una hoja más en el calendario?

Estoy seguro que después de los últimos intensos años que todos hemos vivido, cada uno en sus pequeñas historias cotidianas tiene motivos para asegurarme que no. Nacimientos, bodas o tristes despedidas…, y ¿en lo profesional? Saber que tu propia residencia de especialidad está cercana a finalizar, un hijo inicia Medicina, un nuevo reto profesional se te ha ofertado o más bien es el año de tu deseada jubilación, aún con la tristeza de dejar a tus niños/familias, pacientes… en manos de otro compañero.

El mundo también tiene marcado este año 2023. En este han seguido resonado ecos de guerra en Europa, otros ecos resurgen cercanos con especial afectación a la infancia, elecciones que marcarán (o no) el rumbo político de nuestra profesión, aniversarios y efemérides como el 125 Aniversario del Ilustre Colegio de Médicos de Álava; los 100 años de aquel Nobel en Medicina a Frederick Grant Banting y a John McLeod de la Universidad de Toronto (compartido con Charles Best) tras el primer uso clínico de la insulina del mundo a un chico de 14 años en Toronto…, y avances en la Medicina como el arranque de la "vacunación" universal a todo recién nacido de un anticuerpo monoclonal protector frente al VRS (que tanto nos trajo de cabeza en el 2022) y la puesta en marcha de una nueva enfermedad de cribado neonatal en nuestro territorio (y estoy seguro no será la única) como es la hiperplasia adrenal.

La AEP, el día P de este año nos ha puesto un lema: "Trabajando juntos por los niños y los adolescentes".

Cada año, durante una semana del mes de octubre, los pediatras conmemoramos el Día

*Euskal Herriko Pediatria Elkarteko irakurle eta adiskide maitea:*

*2023. urtea. Egutegiko orrialde arrunt bat?*

*Guztiok bizi izan ditugun azken hilabete betebeteen ondoren, bakoitzaren eguneroko istorio txikiekin, ziur nago ezetz esateko arrazoiak badituzula… Jaiotzak, ezkontzak edo agur tristeak… Eta alderdi profesionalari begira? Zure espezialitate-egoitza bukatzear egon daiteke, beharbada seme-alabaren batek medikuntza-ikasketei ekin die, erronka profesional berri bat eskaini dizute, edo zure erretiro-urtea da eta gogotsu zaude, nahiz eta zure haurrak/familiak, pazienteak, lankide baten eskuetan uzteak tristura sorrarazten dizun.*

*Munduan ere, 2023. urteak arrastoa utzi du. Europan gerra-oihartzunak entzuten jarraitu dugu, haurrei bereziki eragiten dieten beste oihartzun batzuk azaldu dira berriro, gure lanbidearen norabide politikoa bideratuko duten (edo ez) hauteskundeak izan ditugu… Urteurrenak eta efemerideak ere gogoratu ditugu, besteak beste, Arabako Sendagileen Elkargo Ofizialaren 125. urteurrena, Torontoko Unibertsitateko Frederick Grant Bantingek eta John McLeodek Medikuntzako Nobel saria (Charles Bestekin partekatuta) eskuratu zutela 100 urte bete dira —munduan estreinakoz erabili zuten intsulina 14 urteko mutiko batekin, Toronton—… Aurrerapenak ikusi ditugu medikuntzan, adibidez, 2022an buruhauste latzak ekarri zizkigun VRS edo arnas birus sintzitialaren aurka antigorputz monoklonal babesgarria haur jaioberri guztiei «txertatzen» hasi gara, eta jaioberrien gaixotasunen baheketan beste patologia bat gehiago sartu da gure lurraldean (eta ziur naiz ez dela bakarra izango): hiperplasia adrenala.*

*Pediatriaren Egunerako, «Elkarrekin lanean, haurren eta nerabeen alde» lema jarri digu Espainiako Pediatria Elkarteak.*

*Urtero, urriko aste batean zehar, pediatrok Pediatria Eguna, gure P eguna, ospatzen dugu.*




**Figura 1.** *Día P de la Pediatría 2023.*



**Figura 2.** *Reunión científica. Marzo de 2023. Donosti.*

de la Pediatría, nuestro Día P, una fecha que nos sirve para recordar a la sociedad que los pediatras somos los mejores profesionales para cuidar la salud y el bienestar integral de la infancia y la adolescencia. La Sociedad Vasco-Navarra de Pediatria, como parte de la AEP, se une a esta proclama, cada pediatra o cirujano pediátrico desde su ámbito.

A lo largo de este año, la SVNP, al hilo de los acontecimientos médicos, ha mantenido una intensa actividad representativa y científica. Ha sido galardonada de premios y los ha otorgado (ver BERRIAK y METOPA de este número).

*Pediatrak gara haurren eta nerabeen osasuna eta ongizatea zaintzeko profesionalik onenak, eta hori gogoratzeko baliatzen dugu data. Euskal Herriko Pediatria Elkarteak, AEP elkarteko kide denez, bat egiten du aldarrikapen horrekin, pediatra edo kirurgialari pediatriko bakoitzak bere eremutik.*

*Urtean zehar, medikuntzako gertakarien ildotik, EHPEren jarduera bizia izan da, bai ordezkaritza-lanetan, bai arlo zientifikoan. Sariak jaso eta eman ditu (ikusi zenbaki honetako BERRIAK eta METOPA atalak).*

*Bi bilera zientifiko interesgarri eta trinko egin ditugu, izaera mistoari eutsita, udaberrian Donostian eta udazkenean Gasteizen. Bertan jorratutako*




**Figura 3.** *Entrega de premios SVNP a las comunicaciones. Marzo de 2023. Donostia.*



**Figura 4.** *El Dr. A. Borderas en una conferencia de la reunioón de Vitoria. Octubre de 2023.*



**Figura 5.** *Proclamación de la nueva Junta Directiva de la SVNP. Vitoria. Octubre de 2023.*

Hemos celebrado dos interesantes e intensas reuniones científicas, manteniendo el carácter mixto, en la ciudad de San Sebastián-Donostia en primavera y, ya este otoño, en Vitoria-Gasteiz. En este número encontrarás revisiones temáticas de los diferentes temas tratados en las dos reuniones científicas, así como las comunicaciones expuestas.

Este número, asimismo, recoge múltiples trabajos originales científicos y observaciones clínicas de nuestros compañeros y socios de la SVNP, como frutos del espíritu científico de la misma.

Pero una Sociedad debe tener estructuras para su funcionamiento… En este año 2023 se han celebrado elecciones a la Junta Directiva y Presidencia de la SVNP.

En este número encontraréis sendas cartas de despedida de la Dra. Astigarraga y de bienvenida de la Dra. Iceta. Gracias a los que os marcháis y bienvenidos a los que os incorporáis a la bonita labor de mantener viva una Sociedad de 800 profesionales de la salud infantil.

Mirando la vista atrás, yo mismo llevo, tras aquel relevo cedido por el Dr. J. Landa (ex director de este Boletín), 15 años intentando que esta forma de comunicación y representación de la SVNP, el Boletín, nuestro Boletín, sea cada vez un poco mejor. Gracias a los socios y las Juntas por su apoyo y confianza.

Esperando que este número sea de tu agrado, os mando un afectuoso saludo.

**Ignacio Díez**
*Director del Boletín*

*gaien berrikuspenak eta plazaratutako komunikazioak aurkituko dituzu zenbaki honetan.*

*Era berean, EHPEko gure lankide eta bazkideen lan original zientifikoak eta ohartarazpen klinikoak bildu ditugu, elkartearen gogo zientifikoaren emaitza baitira.*

*Baina elkarte batek egiturak behar ditu funtzionatzeko… Hala, 2023an, EHPEren Zuzendaritza Batzordea eta Lehendakaria aukeratzeko hauteskundeak egin dira.*

*Ildo horretan, Astigarraga doktorearen agur-gutuna eta Iceta doktorearen ongietorri-gutuna irakurri ahal izango dituzu. Eskerrik asko bazoaztenei, eta ongi etorri heldu berriei, haurren osasunaren arloan diharduten 800 profesional biltzen dituen elkartea iraunarazteko lan politari helduko diozuenei.*

*Atzera begira jarrita, nik neuk ere 15 urte daramatzat Buletina, gure Buletina, gero eta hobea izan dadin lanean; EHPEren komunikatzeko eta ordezkaritzan aritzeko bitarteko honen lekukoa J. Landa doktorearen (Buletin honetako zuzendari ohiaren) eskuetatik jaso nuenetik. Eskerrik asko bazkideei eta batzordeei zuen laguntzagatik eta erakutsitako konfiantzagatik.*

*Aldizkariaren zenbaki hau gustura irakurriko duzulakoan, har ezazu gure agurrik beroena.*

**Ignacio Díez**
*Buletinaren zuzendaria*